28. ALEA | MAIATZA 2021

# ERREMINTXA
BY XISTERA

JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA



Argazkia: Jon Leunda

# Pilotariak ari dira kantxetara itzultzen, baina zaleek oraindik itxaron egin beharko dute

# •IRITZIA•

## *Telebistaren beharra*

Gaur egun kirol munduan telebista beharrezkoa da. Askoren ustez telebistek dirua ematen diote kirol ezberdinei, baina zoritxarrez hori gutxitan gertatzen da, baina zuzeneko diru hori ez jaso arren, bai babesleak bilatzeko ateak zabaltzen dituela, eta hori ere beharrezkoa da, egiten dugun kirola ezagutzea ematea den bezalaxe.

Hala ere telebista guregana gerturatzea nahi baldin badugu, guk ere zerbait eskaini beharko diogu. Besterik gabe ez da etorriko. Baina zoritxarrez, eta batez ere telebisten beharrik handiena duten kirol askotan, ez da horrela izaten, zain geratzen gara, ea noiz etorriko den, baina ez da agertzen.

Gaur egun kirol ugari dago, ikusikizun asko daude, eta zerbait ezberdina eskaini behar da. Ez dute balio sekulan amaitzen ez diren jaialdiak, eta inoiz bukazten ez diren tantoak. Jokoa azkarra eta ikusgarira izan behar du, edozein dela ere kirola, jendeak arretaz jarraitu dezan, eta jaialdiak ere laburrak izan behar dute, eta ez telebistarentzat bakarrik, baita ikustera doan jendearentzat ere. Telebistak ate asko zabaldu litzazke gauzak ongi eginez, baina gaizki eginez gero, agian itxi ere bai.




erremintxa
BY XISTERA

**Argitaratzailea:** Xistera Kirol Kluba

**Helbidea:** Elexalde-Zeeta 44, 48313 Ereño

**Diseinua:** Belako Publizitatea eta Komunikazioa (943698996 - www.belako.info)

**Publizitatea:** 644 481 935 - erreminta@xistera.eus

**Tirada:** online irakurtzeko alea, ez da paperean inprimatu

**Lege-gordailua:** BI-126-2019

**OHARRA:** *Erremintak* ez ditu bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Debekatua dago aldizkariko edozein testu edo argazki idatzizko baimenik gabe erabiltzea. Aldizkari hau doan banatzen da eta iragarleei esker argitaratzen da.

HARPIDETU / SUSCRIBETE / S'ABONNER
644 481 935 - erreminta@xistera.eus
40€ / urtean-año-année
Zure buzoian jasoko duzu / La recibirás en tu buzón / Tu la recevras dans ta boîte aux lettres

XISTERAren laguna egiten bazara
Si te haces amigo de XISTERA / Si tu deviens ami de Xistera
www.xistera.eus/go/ez-dauka-preziorik
30€

# •EDITORIAL•

## *Necesidad de las televisiones*

Hoy en día es fundamental la televisión para cualquier actividad y también para el deporte. Muchos se siguen creyendo que las televisiones siguen ofreciendo grandes cantidades de dinero, pero eso suele ser para actividades muy concretas. Pero independientemente de ello, las televisiones abren las puertas para nuevos patrocinadores, algo que es fundamental para cualquier actividad deportiva, al igual que da a conocer nuestro deporte.

Pero si queremos que las televisiones se acerquen a nuestra actividad es evidente que algo les tenemos que ofrecer, ya que sin más no van a venir. Pero por desgracia seguimos pensando que es la televisión quien tiene que dar el primer paso, algo que es una tremenda equivocación.

Pero como hemos citado antes, tenemos que ofrecer algo diferente, algo que la gente lo vea y lo quiera ver una próxima vez. No podemos ofrecer partidos que no se acaban nunca, ni festivales eternos que empiezan y no sabemos cuando se van a acabar. La gente quiere ver algo rápido, espectacular, que le haga sentir el juego que está viendo,  pero no solo los que lo están viendo por televisión, también los que lo están haciendo en directo. La televisión puede abrir muchas puertas, pero si no se utiliza bien, también las puede cerrar.

## *Le besoin de la télévision*

De nos jours, il est indispensable la télévision pour n’importe quelle activité, y compris le sport. Beaucoup d’entre nous pensent encore que les télévisions continuent à offrir des sommes importantes d’argent, mais généralement cela n’est vrai que pour des activités très spécifiques.

Mise à part ça, les télévisons n’ouvrent leurs portes que pour des nouveaux sponsors, ce qui est essentiel pour toute activité sportive, en même temps que ça fait connaître notre sport.

Si on veut que les télévisons se rapprochent de la nôtre, il est évident que nous devons, en échange, leur offrir quelque chose d’intéressant, car autrement ils ne viendront pas. Mais, malheureusement, et c’est comme ça que ç’a arrive dans les sports qui en ont le plus besoin, nous pensons toujours que c’est la télévision qui doit faire le premier pas, ce qui est une grave équivocation.

En ce moment aux télévisions il y a beaucoup de sports, et énormément de spectacles, donc nous avons beaucoup de concurrence. Tel que nous avons dit auparavant, nous devons leur offrir quelque chose de différent, que les gens qui le voient veuillent voir une suite, qu’ils y accrochent. Il n’est donc pas possible de faire des matchs sans fin, ni des festivals interminables qui commencent et qui ne finissent jamais.

Les spectateurs veulent quelque chose de rapide et de spectaculaire, qui leur fasse sentir dans leur peau le jeu qu’ils regardent à l’écran, et cela non seulement les spectateurs qui sont devant la télévision mais aussi ceux qui sont présents en direct. En faisant bien les choses, la télévision peut ouvrir beaucoup de portes, mais il faut faire attention, car si on ne le fait pas bien, elle peut aussi les fermer.




Argazkia: Erreminta

# Bartzelonako Vasconia taldea jadanik normaltasunez ari da bere frontoian entrenatzen

Azkeneko urtebetea gogorra izan da Xisterako parte den Bartzelonako Vasconia taldearentzat. Kataluniarrak entrenatzeko frontoirik gabe geratu ziren, baina hori konpondu da, eta jadanik normaltasunez ari dira entrenatzen Vall D´Hebron pilotalekuan.

Covid dela-eta, ondoko kiroldegia erietxe bihurtu zuten, eta boleian jokatzeko kantxa bihurtu zuten 54 metroko pilotalekua, eta ordutik motzean entrenatzen jardun zuten. Epe baterako izango zela esan zien Udalak Vasconiako kidei, baina zalantzak izan dituzte berriro pilotarako jarriko zutenik, baina azkenean gauzak normaltasunera itzuli dira.

«Kendu dute parkea eta jadanik jokatzeko moduan gara. Hori bai, nahiz eta ari garen bertan entrenatzen, konponketa batzuk egin behar dira. Kontrakantxa puztu egin da, eta porlanezko adreilu batzuekin konpontzen saiatu diren arren, ez da posible izan. Eta badirudi berria jarriko dutela. Zorua ere zikina geratu da, eta garbitu beharra da, eta txapa ere ongi jarri, baina aurrekontua onartu dute, eta badirudi egingo dutela. Ondorioz, jadanik normal ari gara entrenatzen, eta laister pilotalekua lehen bezala ikustea espero dugu», esaten du Carles Pedragosak, Vaskoniako ordezkariak.

## Vasconia de Barcelona ya entrena con normalidad en su frontón

El último año ha sido complicado para el Vasconia de Barcelona, ya que se quedó sin el frontón de 54 metros del Vall D´Hebron. Por culpa del Covid, en el polideportivo que está al lado se montó un hospital y en el frontón se montó el parqué para jugar al voleibol.

Pese a que el principio había dudas de si se quitaría el parqué, ya lo han hecho y el problema ya se ha solucionado, aunque para ver el frontón tal y como estaba antes harán falta unos arreglos, aunque ya pueden entrenar y jugar allí.

«Tal y como nos prometieron quitaron el parqué del frontón y ya podemos entrenar. En la contracancha ha habido una inflamación y han intentado arreglarlo poniendo bloques de cemento para poner como estaba, pero no ha sido posible y nos han dicho que lo van a arreglar. También hay que pintar el suelo, ya que ha quedado muy sucio y también hay que remodelar la chapa. El presupuesto está aceptado y lo pondrán bien. Pero lo importante es que ya llevamos entrenando casi un mes utilizando los dos frontones el corto y el largo», dice Carles Pedragosa, responsible del club.

C10KA ®
MARKA ERAIKITZAILEAK
2020//10 URTE

# Ereñoko pilotalekuak sare berria dauka

## Dena prest dute jada entseguekin zein jaialdiekin hasi ahal izateko


Argazkia: Erreminta

Ereñoko pilotalekuak sare berria dauka. Gaitza hasi aurretik jokatu zen denboraldian, Ereñon ez zen Xisterako jaialdirik izan, sarean zegoen arazoarekin, baina une honetan jadanik dena berria jarrita dago, eta ez legoke jokatzeko arazorik.

«Orain pilotalekua zikin samarra dago, txukuntzea falta da. Egoerak dena atzeratuta dauka, eta Udala ikusten ari da gauzak nola egin», dio Sabaino Olarretak, Ereño Jai Alaiko arduradunak. «Sarearekin arazo handi bat geneukan, baina hori gutxienez konponduta dago», eransten du.

Hala ere, gauzak dauden bezala egon da, eskola geldirik dagoela ere esaten du Sabinok. «Gaitza hasi zenetik ez dugu entsegurik egin. Arriskuak hartzerik ez du merezi, eta oraingoz geldirik gaude», dio Sabinok. Hori bai, hasteko irrikitan daudela dio. «Denak gaude hasteko irrikitan, baina zentzuz jokatu behar da. Hasteko moduan gaudenean, berriro ere ekingo diogu», dio.

### En el frontón de Ereño ya tienen nueva red

El frontón de Ereño ya cuenta con una nueva red. Ya no hubo festivales de Xistera en el año anterior al Covid, pero a partir de ahora ya se pueden celebrar partidos.

«El frontón está un poco sucio y falta pintar y amoldar un poco, para que quede bonito. Toda esta situación ha retrasado un poco, pero el Ayuntamiento está en ello, mirando cómo hacer el resto de los trabajos», afirma Sabino Olarreta, responsable del club de Ereño. «Con la red teníamos un gran problema, que ya lo hemos solucionado», añade.

Pero, al tener la situación que vivimos en la actualidad, Sabino asegura que la escuela está parada. «Desde que empezamos con la pandemia no hemos ensayado. Pensamos que no merece la pena coger riesgos y estamos parados», dice. «Todo el mundo está con ganas de regresar a las canchas, pero hay que hacer con cabeza. En el momento que podamos reanudar todo, allí estaremos», asegura Sabino.

RED NETWORK LAWYERS
ABOGADOS
SU DESPACHO DE ABOGADOS
PERSONAL EN EL MUNDO
Arenal, 6 –6º dpto.604 C.P. 48005 BILBAO 944.790.214



# Ignacio Gros: «Andaluzian zesta puntari eusten diogu oraindik»

## Lau pilotarik jarraitzen dute jokatzen frontoi ireki bakarrean

Malagan, San Pedro de Alcantara herrian, oraindik zesta puntari eusteko modua egiten dute. «Lau bakarrik gabiltza hemen, nahiz eta batzuk urteetan aurrera ere bagoazen, baina eusten ari gara eta saiatzen ere bai zestari indarra ematen, nahiz eta zaila dagoen«, esaten du Ignacio Grosek.

«Une honetan frontoiak 36 metro dauzka eta aterperik ez dauka. Konponketa batzuk ere behar ditu, baina moldatzen ari gara. Hala ere komponduko dutela ere esan digute udaletik», geitzen du Ignaciok. Gros berak eskola bat ere eduki omen zuen gazteekin, baina ez zuela funtzionatu esaten du. «Egia esan irakasle izateko ez daukat pazientzi gehiegi, baina izan genuen eskola bat hemen. Hala ere gazte jendea etorri eta bi edo hiru egun probatu eta joan egiten zen. Ez da erraza hemen horrelako eskola batek aurrera egitea, baina garbi dago hemen zestak aurrera egitea nahi badugu, zerbait behar dugula, nahiz eta zaila dela jakin», esaten du.

*«Huelvan eskola ere egon zen, 15 gazterekin, baina frontoia bota zuten eta desagertu egin zen»*

Hala ere, San Pededro de Alcantarakoa bakarrik ez zen izan Andaluzian zestako eskola izan zuena. «Huelvan ere egon zen, eta oso ongi funtzionatu zuen 15 gazte inguru jardun zuten bolada batean. Irakaslea gipuzkoarra zen, baina gero desagertu egin zen, frontoia bota ete beste eraikin bat egin baitzuten», esaten du.

Zestaren eta pilotaren etorkizuna alde hartan zaila izan arren, garbi daukate aurrera egingo dutela. «Gu zestan aritzeaz gain, palaz ere aritzen gara. Lehen esan bezala frontoia irekia da, eta horrek arazo bat baino gehiago ekartzen dizkigu, baina gauza garen bitartean jarraituko dugu. Jakin badakigu inguru hauetan pilota indartzea zaila dela, baina ahalegin hori egin gabe ezin gara geratu», esaten du Ignaciok.

Aitor Totorika ere gogora ekarri nahi izan zuen. «Gurekin aritzen zen, eta gazua asko lortu zizkugun. Andaluziako Federazioa ere gauden lekura ekartzeko ahalegin handia egin zuen, eta sekulako zortea izan genuen bera hemen izan genuenean. Orain berriro gazuak zaildu zaizkigu, baina guk borrokan jarraituko dugu», esanez amaitu zuen jarduna.

# Ignacio Gros. «En Andalucía seguimos manteniendo la cesta punta»

En Málaga, en la localidad de San Pedro de Alcántara, se sigue jugando a la cesta punta. No quedan más que cuatro, justos para jugar un partido a parejas, pero todos ellos siguen manteniendo la misma ilusión de siempre. «Estamos solo cuatro, y pese que algunos ya vamos entrando en años, seguimos peleando y jugando a la cesta e intentando dar a conocer nuestra modalidad», afirma Ignacio Gros.

«El frontón mide 36 metros y está descubierto, y necesita arreglos, pero nos amoldamos. Al estar descubierto hay veces que se nos ha escapado la pelota y hemos tenido algún susto, pero nada importante», añade Gros. El propio Ignacio dirigió una escuela en San Pedro de Alcántara, pero al final no funcionó. «La verdad es que no tengo demasiada paciencia para el profesorado, pero es cierto que venían jóvenes, que estaban dos o tres días y se iban, y me dí cuenta que aquello no tenía sentido», asegura.

De todas formas, la escuela de San Pedro de Alcántara no fue la única que hubo en Andalucía. «En Huelva también hubo una escuela. Tenían un frontón de 54 metros y se disputó también el Campeonato de Europa. Lo dirigía un guipuzcoano y la verdad es que funcionó bien, tuvo hasta unos 15 pelotaris, pero luego lo derribaron para hacer allí otro recinto y se acabó todo», recuerda Ignacio.

El futuro de la pelota en tierras andaluzas no es fácil, pero quieren seguir luchando. «Aquí jugamos a cesta y a pala. Sabemos que la pelota no es un deporte conocido por estos lares, pero vamos a seguir trabajando, luchando para que esto perdure y que la gente pueda disfrutar de ella», dice.

Ignacio no se quiere despedir sin mencionar a Aitor Totorika. «La verdad es que aquí hizo mucho. A nosotros nos ayudo mucho  y estaba pensando en traer la Federación de Andalucía aquí. Desgraciadamente falleció y todo se ha quedado en el camino, pero hizo mucho por nosotros», matiza Ignacio.



# Zumaia eta Danok Bat izan dira zesta puntako Gipuzkoako txapeldunak

## Emozioz beteriko finala izan zen maila nagusikoa, goi mailako pilotariekin

Gipuzkoako zesta puntako finalak jokatu dira eta Zumaiako eta Mutrikuko Danok Bat elkarteetako pilotariak izan dira txapelak jantzi dituztenak.

Maila nagusian Zunaiako C.Agirre eta Uranga gailendu ziren finalean Mutrikuko Danok Bat taldeko Goenaga eta Manci 30 eta 26 mendean hartuta. Emozioa izan zuen neurketa izan zen, goi mailako lau pilotarirekin. Azkenean, garaipena Zumaiara joan zen.

Zumaiarrak eraman zuten baita ere gazte mailako txapela. Hemen ere Zumaia eta Danok Bat neurtu ziren. G.Agirre eta Ureta izan ziren onenak finalean Urreisti eta Basterretxea 30 eta 20 mendean hartuta.

Kadete mailakoan atera ahal izan zuten mutrikuarren arantza, izan ere Danok Bat taldeko Zubizarreta eta Ansola izan ziren txapeldunak, finalean Hondarribiako Rodrigo eta Kanpandegi 30-23 menderatuta.



Argazkia: Erreminta

***Zumaiako elkarteko pilotariek lortu zuten garaipena maila nagusian eta gazteen mailan***

## Zumaia y Danok Bat han logrado el Campeonato de Gipuzkoa de cesta

Los pelotaris de Zumaia y Danok Bat de Mutriku han sido los grandes protagonistas de las finales de Campeonato de Gipuzkoa de cesta, ya que entre ellos se han repartido todas las txapelas.

En la máxima categoría, C. Agirre y Uranga se adjudicaron el título provincial tras superar en la final a los mutrikuarras Goenaga y Manci 30-26. A la final no le faltó emoción en un duelo con cuatro pelotaris de altísimo nivel.

En juveniles los pelotaris de Zumaia G.Agirre y Ureta fueron quienes se adjudicaron el título tras ganar 30-20 a los mutrikuarras Urreisti y Basterretxea.

En cadetes fueron los de Mutriku quienes ganaron la final. El dueto compuesto por Zubizarreta y Ansola superaron a 30-23 a Rodrigo y Kanpandegi.

ERREMINTA
BY XISTERA
JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA
Iragarri zaitez hemen
943 603 440
Anunciate en nuestras páginas

# Aarón y Ayo se adjudican el Campeonato alavés de cesta



Argazkia: Erreminta

## Los ganadores eran los favoritos y no defraudaron, llevándose las txapelas

Aarón y Ayo se llevaron la final del Campeonato de Araba de cesta, tras superar en la final 30-24 a Lafuente y Adrián. El choque fue bueno por parte de los cuatro pelotaris, viendo a lo largo del envite tantos de bella factura. Los vencedores partían como favoritos y no defraudaron, llevándose las txapelas.

En Segunda, por su parte, la victoria fue para Cotelo y Larrazabal, que se llevaron el triunfo con mucha autoridad ante Suso y Navarro por un claro 30-19. Los ganadores fueron superiores a lo largo del choque, consiguiendo una merecida y clara victoria.

En juveniles, Oier y Alonso fueron quienes acabaron en lo más alto del podium, tras superar a Aimar y a Zarandona por un ajustado 25-22. El choque que fue igualado, manteniendo la emoción hasta el final del encuentro.

> ***Cotelo y Larrazabal, en Segunda, fueron superiores en todo el partido logrando la victoria***

## Aaron eta Ayo izan dira zestako Arabako txapeldunak

Aaronek eta Ayok irabazi zuten Arabako zesta puntako Txapelketa, finalean Lafuente eta Adrian 30 eta 24 mendean hartuta. Neurketa lau pilotarien aldetik ona izan zen, tanto bikainak ere ikusi zirelarik partida guztian. Txapela jantzi zuen bikotea zen irabazteko faboritoa, eta ez zuten hutsik egin.

Bigarren Mailan, garaipena Cotelok eta Larrazabalek eskuratu zuten, azkeneko neurketan Suso eta Navarro 30 eta 19 mendean hartuta. Azkeneko emaitzak erakusten duen moduan, garaipena lortu zuen bikotea nagusi izan zen, eta garaipen erosoa lortu zuen.

Gazte mailakoan, berriz, Oier eta Alonso izan ziren txapela jantzi zutenak, azkeneko neurketan Aimar eta Zarandona 25-22 mendena hartuta. Nurketa parekatua izan zen, emozioari azkenerarte eutsiz.




Argazkia: Erreminta

# Gipuzkoak eta Bizkaiak zestako GRABNIko txapelak banatu dituzte

## Gipuzkoarrek maila nagusian eta bizkaitarrek gazteetan irabazi zuten

Zesta puntako GRABNIko finalak jokatu berri dira eta Gipuzkoak eta Bizkaiak txapelak banatu dituzte. Gipuzkoarrek maila nagusian lortu zuten txapela, eta bizkaitarrek, berriz, gazteen mailan.

Maila nagusian Agirre eta Manci lehiatu ziren gipuzkoarren aldetik, eta Antxon eta Zabala bizkaitarren aldetik. Gipuzkoarrak nagusitu ziren 30-21. Zumaiarra eta mutrikuarra partida heltzen zihoan bezala nagusitzen joan ziren, eta amaieran bederatzi tantoko aldearekin lortu zuten txapela.

Gazte mailan, berriz, Bizkaiak eraman zuen garaipena. Zelaia eta Atain II.a nagusitu ziren, 30-17 Urreitsiren eta Uretaren aurka. Markagailuak erakusten dun moduan, garaipena lortu zuen bikotea nagusi izan zen, amaieran txapela lortuz.

## Gipuzkoa y Bizkaia se reparten las txapelas del GRABNI de cesta

Gipuzkoa y Bizkaia se repartieron las txapelas del GRABNI de cesta, tras imponerse cada uno en una categoría. Los guipuzcoanos lo hicieron en senior, mientras que los vizcaínos lo hicieron en juveniles.

En senior, Agirre y Manci se impusieron a Antxon y a Zabala 30-21. El zumaiarra y el mutrikuarra fueron madurando el envite para al final ponerse las txapelas, acabando la contienda con nueve tantos de diferencia.

En juveniles, fueron los vizcaínos Zelaia y Atain II quienes se adjudicaron el título tras superar a Urreisti y a Ureta 30-17. Los vencedores, tal y como demuestra el marcador, fueron superiores en esta final.

gfi
NEW CHALLENGES,
NEW IDEAS

# Uterga y Barrikart se llevan el Torneo de Remonte Comarca de Pamplona

## El torneo fue organizado en beneficio Asociación de Ayuda a Niños Oncológicos de Navarra


Argazkia: Fundación Remonte

Uterga y Barrikart se llevaron las txapelas del I Torneo de Remonte Comarca de Pamplona, al ganar en la final jugada en el frontón Labrit a Ezkurra II-Saldias (35-31). Fue tras 49 minutos y 383 pelotazos de un partido excelente, en el que el delantero Xanti Uterga marcó diferencias al acabar con nada menos que 25 tantos hechos en su casillero.

La final, al igual que todo el torneo, fue organizada por la Fundación Remonte y la empresa eRemonte Beti Euskal Jai en beneficio de Adano (Asociación de Ayuda a Niños Oncológicos de Navarra). La lucha por las txapelas ofreció un nivel de juego de muchos quilates por parte de los cuatro remontistas. Uterga-Barricart empezaron de forma impecable (4-0 y 6-2), pero sus rivales se agarraron al partido y, con mucha pelea, les alcanzaron en el 12-12. Fue el primero de un carrusel de diez empates consecutivos, hasta el 21-21, en una racha de mucho ritmo e intensidad. A partir de ahí, Uterga y Barricart tomaron ligeramente la delantera, pero Ezkurra II-Saldias les alcanzaron en el 24-24 y 26-26. El 26-26 fue la última igualada del encuentro, y se rompió a favor de los txapeldunes tras un tanto estratosférico, el más peloteado de la final, que ganó Uterga después de 28 pelotazos a buena. Uterga y Barrikart llegaron más enteros a la recta final, en la que lograron una jugosa renta (30-26, 30-28 y 34-28) que ya resultó insalvable para sus rivales (34-31 y 35-31).

## Uterga eta Barrikart izan dira Iruñerriko erremonte torneoko onenak

Uterga eta Barrikart izan dira Iruñerriko erremonte torneoko onenak Labriten jokatutako finalean Ezkurra II.a eta Saldias 35-31 mendean hartuta. 49 minutu iraun zuen finalak, eta 383 pilotakada jo zituzten. Xanti Uterga izan zen finaleko onena, 25 tanto eginez.

Finala ikusgarria izan zen. Uterga et Karrikart bikain hasi ziren 4-0 eta 6-2 aurretik jarriz, baina aurkariak ez zeuden lo, eta partida 12na berdindu zuten. Hortik aurrera berdinketak bat bestearen atzetik etorri ziren. Azkenekoa 26nakoa izan zen, eta neurketa hortxe apurtu zen txapeldunen alde. Hortik aurrera txapela jantzi zuen bikoteak lortutako aldetxoa ongi kudetau zuten, amaieran lau tantotako aldearekin garaipena lortuz.

Noticias de Gipuzkoa




Argazkia: Maialen Andres

# Ansa-Labaka eta Goikoetxea V.a-Aizpurua III.a, sailkapenaren buru

## Bi bikoteek orain arteko bi partidak irabazi dituzte

Jadanik abian da astelehenetan jokatzen ari den erremomnteko sagardoaren Txapelketa. Hernaniko Galarretan ari dira jokatzen neurketak, eta ale hau isterako garaian, Ansa-Labaka eta Goikoetxea V.a-Aizpurua III.a dira sailkapenaren buruan dauden bi bikoteak.

Biek jokatutako bi partidak irabazita daude, eta horrekin 8 puntu batuta daude, bakoitzean launa batuta. Atzetik, Etxarri eta Barrenetxea IV.a daude, bost punturekin, baina hiru partida jokatuta. 2, 1 eta 2 puntu batu dituzte.

Laugarren Segurola eta Larrañaga daude, baina hauek partida bakarra jokatu dute ale hau kaleratu dene unean, eta neurketa hori irabazi eta 4 puntu dituzte, Urrizak eta Zalduak bezalaxe, hauek ere neurketa bakarra jokatu, irabazi eta 4 puntu baidituzte.

Sailkapeneko azkenak Juanenea eta Zubiri dira eta hauen egoera nahiko larria da. Bi partida jokatu, biak galdu eta puntu bana lortu dute.

LABORAL kutxa

## Ansa-Labaka y Goikoetxea V-Aizpurua III, encabezan la clasificación

Ya está en marcha Sagardoaren Erremomte Txapelketa, que se está jugando los lunes en el Galarreta de Hernani. En el momento de cerrar la edición, Ansa-Labaka y Goikoetxea V-Aizpurua III encabezan la clasificación.

Los dos duetos han disputado hasta el momento dos partidos, ganando los dos, sumando 8 puntos, 4 por partido. Por detrás le siguen Etxarri y Barrenetxea IV, que han logrado 5 puntos, pero en tres partidos. 2, 1 y 2.

En el cuarto y quinto puesto están Segurola-Larrañaga y Urriza-Zaldua, pero estas dos parejas han jugado un solo partido y han ganado el que lo han jugado, logrando 4 puntos. En el momento de cerrar la edición, eran Juanenea y Zubiri quienes estaban en la cola de la tabla con 2 puntos y con dos partidos jugados y los dos perdidos.

# Ramuntxoko pilotariek jantzi dituzte paleta arjentinarreko txapelak

## Maila handiko norgehiagokak izan ziren, jendeak sartzerik izan balu, txalo zaparrada ederrak entzutekoak

Ramuntxoko pilotariak nagusitu dira Gipuzkoako paleta arjentinarreko Txapelketan, bertako pilotariak izan baitira bi mailetako txapeldunak,. Finalak Irungo Ramuntxo trinketean jokatu ziren.

Maila nagusian, Ramuntxoko Larrarte eta Pablos 30 eta 22 nagusitu ziren Kurpil Kirolakeko Sagartzazuri eta Almandozi. Lau pilotariek ikaragarrizko neurketa eskaini zuten, eta jendeak sartzerik izan balu, txalo zaparrada ederrak entzun beharko zitzuten. Azken txanpan etxekoek ihes egin zuten markagailuan, eta azkenean garaipena lortu zuten.

Bigarren Mailan ere etxean geratu ziren txapelak, Oiartzun eta Labaein oso erraz aritu baitziren neurketa osoan zehar, aurkariei inongo aukerarik eman gabe. Amaieran 30 eta 13 hartu zituzten mendean Real Sociedad taldeko Navarro eta Lujanbio.


Argazkia: Erreminta

## Los pelotaris de Ramuntxo se llevan las finales del Campeonato de Gipuzkoa de paleta argentina

Los pelotaris de Ramuntxo han vuelto a ser los mejores del Campeonato de Gipuzkoa de paleta argentina, en las finales disputadas en el trinkete Ramuntxo de Irun.

En Primera Categoría. Los pelotaris de Ramuntxo Larrarte y Pablos ganaron 30-22 a los de Kurpil Kirolak Sagartzazu y Almandoz, por 30-22. El choque fue brillante por parte de los cuatro pelotaris, que ofrecieron un gran espectáculo.

En Segunda Categoría, los locales volvieron a ganar también. Fueron Oiartzun y Labaien quienes se impusieron por un rotundo 30-13 a Navarro y Lujanbio, dueto de la Real Sociedad. El resultado final refleja el claro dominio de los pelotaris de Ramuntxo.



# Agirre y herrero lucen las txapelas de pala corta de Araba

## Sáez de Viteri tiró de orgullo y apretó para no perder el ritmo del partido, aunque finalmente la remontada no pudo ser


Argazkia: Erreminta

Agirre y Herrero ya lucen las txapelas de pala corta de Araba, tras superar en la final a Angulo y Sáez de Viteri 40-33.

El ritmo y confianza de Agirre permitieron que el partido discurriera favorable para sus intereses. Los colorados llegaron a disfrutar de ventajas que parecían definitivas. Sáez de Viteri, sin embargo, tiró de orgullo y apretó para que Angulo recuperara pulso y aire y no le perdiera la cara al partido. En esas Herrero bajó su rendimiento y el partido entró en una fase donde podía pasar de todo. Viteri no paraba de hablar y Agirre a lo suyo. La remontada se quedó ahí, en la orilla. Los colorados metieron una nueva marcha y el castillo de naipes de los azules terminaron en el suelo en una fase donde dominaron de nuevo los campeones.

gestilan
asesores

## Agirrek eta Herrerok buruan dituzte Arabako pala motzeko txapelak

Agirrek eta Herrerok jadanik buruan ditzute Arabako pal motzeko txapelak, herrialdeko Txapelketako finalean Angulo eta Saez de Viteri 40 eta 33 mendean hartuta. Agirre izan zen ezberdintasunak markatu zituen pilotaria, nagusi izan baizten, eta aldeak ere berak egin zituen.

Partidaren erdian Herrerok apur bat maila jaitsi egin zuen, eta horrek oreka ekarri zuen, baina markagailuan aldaketa etorri zitekela ematen zuenean, irabazleek berriro ere jokoa bizitu, eta txapelak lortu zituzten.



Argazkia: Erreminta

# Irazustabarrena y Arrillaga ganan el Torneo Bizkaia de paleta cuero

## Comenzaron por detrás en el marcador, aunque lograron darle la vuelta en los dos juegos restantes

### Irazustabarrenak eta Arrillagak irabazi dute paleta larruzko Bizkaia Torneoa

Amaia Irazustabarrenak eta Miriam Arrilagak irabazi dute paleta larruzko Bizkaia Torneoa, finalean Leire Galdos eta Maider Mendizabal 2-1 mendean hartuta (11-12, 12-9 eta 12-10).

Irabazleak emaitza irauli beharrean gertatu ziren, izan ere aurreneko jokoa galdu egin baitzuten, tanto bakar batez. Bigarrena eta hirugarrena irabazteko gai izan ziren, baina haiek ere lan asko egin eta gero lortu zituzten. Finala polita eta estua izan zen.

Amaia Irazustabarrena y Miriam Arrillaga lograron el título del Torneo Bizkaia de paleta cuero femenina que se disputó en el frontón Bizkaia de Bilbao. La hernaniarra y la zubietarra derrotaron a Leire Galdos y a Maider Mendizabal por 2-1 (11-12, 12-9 y 12-10).

Irazustabarrena-Arrillaga tuvieron que dar la vuelta a un choque se les puso en contra en los primeros compases.

En una manga dura, las coloradas encajaron una derrota inicial por la mínima. Sin embargo, fueron capaces de reponerse en los dos siguientes juegos para llevarse la txapela a casa.

ERREMINTA
BY XISTERA
JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA
Iragarri zaitez hemen
943 603 440
Anunciate en nuestras páginas



Irizar

www.irizar.com